






LEHEN HEZKUNTZAKO 1. MAILAKO IKASLEENTZAT ARIKETAK

1. Lehen pausoa, proposatutako bi ugaztun espezieetatik bat hautatzea izango da, bidali dizuegun eranskina erabili beharko duzue horretarako.

2. ZER DAKIGU?

- Animalia hauetatik markatu ugaztunak direnak.



- Nola jaiotzen dira ugaztunak?

→ Arraultzetatik

→ Amaren sabeletik

- Idatz itzatzu uretan bizi den ugaztun bat, lurrean bizi den beste bat, eta hegan egiten duen beste bat.

3. ZER EGIN? Kromoen bildumatxoa

Aurreko ariketan ikasitako guztia gogoan hartuta, orrialde batean **marratzu ezazu zure muturluze edo izurdea**, eta emaitza izen polit bat.

Ez ahaztu zure kromoan, animalia honen elikadura mota, bizilekua eta koloreak kontuan izatea.

Azkenik, jarri kromo guztiak elkarrekin. Hortxe duzue bilduma!!

4. Bidali Dbus-era argazki bat!

Kromoen bilduma amaitu ostean, bidaliguzue bildumaren argazki bat. Hartara ongi jakingo dugu zein izan den hautatu duzuen espeziea.

Ongi pasa!

ERANSKINA: espezieen deskribapena

Galemys pyrenaicus, Artikutzako Muturluze iberiarra

Desmana edo Muturluzea ugaztun txiki bat da, 70 gramo eskasekoa. Satorren oso-oso antzekoa da; duela asko dietaz aldatzea erabaki zuen, eta lurreko zizareak uretako intsektuekin ordeztu. Mendietako ibaietako ur garbietan bizi da, eta han bilatzen du jana.



Gauz ibiltzen da, azkarra da eta ez zaio gustatzen inork ikustea. Animalia berezia da, mutur luzea du, asko mugitzen den muturra, aho handia eta azazkal itzelak; esan genezake, "geure ornitorrinkoa" edo holako zerbait dela

Globicephala melas, Izurde pilotua

Izurde pilotua (*Globicephala melas*) izurdeen ahaide hurbilagoa da, baleena baino. Beltza edo gris iluna da, eta marra grisa edo zuria du diagonalean, begi bakoitzaren atzealdean, eta burua luzea eta borobila du. Azken ezaugarri horretatik datorkio gaztelaniazko izena (calderón), bere buruak lapiko handi bat ematen du eta.

Batzuk itsaso zabalean edo kostaldeko uretan bizi daitezke beti, eta beste batzuk, berriz, lekuz aldatzen dira, elikagaia aurkitzen duten lekuaren arabera.

Oso animalia sozialak dira, familian bizi dira eta ehun kide ere izaten dituzten taldeetan bidaiatzen dute, lider baten inguruan antolatuta. Oso aktiboak dira, eta ur azalean ikus daitezke sarritan.

